



220. zenbakia

UZTAILA 2022

pulumpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan, Anuenatura eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Esan Erran irratiko lagunak, Aizarozko festan

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira ekainaren 6an bidalia



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Olerkia



PERSONA

“

maite dut ulertzea
binakako egoera klasikoan
inork ez baitaki zer den bakardadea solitudea

maite dut ulertzea baina
gauza eta Persona gehiegi dago, Bergman
zer nahi dudan esadazu

nahi dudan esadazu
Zer dudan esadazu
dudan esadazu
esadazu
zer
nahi

dudan

”

Gepardo japoniarrak Lizar Begoña





Begiko

infekzioak

Ohikoak dira infekzio mota hauek, baina gehienak erraz tratatu daitezke

Bekatxoak –gazteleraz orzuelo–, konjuntibitisa, bekainetako hanturak... asko dira begietan izan ditzakegun infekzioak, baina horietatik gehienak zailtasun handirik gabe tratatu daitezke. Pulunpe honetako osasun atalean gaitz mota horiek ezagutuko eta horiek nola ekidin ikusiko dugu

Konjuntibitisa

Konjuntibaren hantura da, hain zuzen, begiaren gainazala estaltzen duen mintz fin eta gardenarena. Infekzioak odol-hodiak bistarazten ditu, hortik dator begien kolore gorria. Infekzio birala da, nahiz eta kasu batzuek jatorri bakteriarra ere izan dezaketen. Normalean begi batetik hasi eta bestera pasatzen da gero, kutsatzeko ahalmen handia baitu, eskuetatik bereziki.

-Sintomak: begietako mina, malkoak ateratzea, puztutako betazalak

-Nola tratatu: begia suero fisiologikoarekin garbituko dugu maiz, eta beste pertsoneri kutsatzea ekiditeko, norbere eskuoihala erabiltzea gomendatzen da. Begia hidratatzeko malko artifizialak erabiltzea ere gomendatzen da

Bekatxoa (edo 'orzueloa')

Pikor baten antzeko zerbait da, bakterio batek eragiten duena, eta ikusmena oztopatzeaz gain, mina ematera ere iritsi daiteke. Zenbaitetan, bekatxoak estres handiko garaietan edo hormona aldaketak izaten direnean agertzen dira.

-Sintomak: betazala gorritzea eta handitzea, begi ingurua sentikor jartzea, begietan harea edukitzearen sentsazioa

-Nola tratatu: sendagaien beharrik gabe, aste batean edo bitan desagertzen da normalean. Dena dela, gomendagarria da beroa eta hezetasuna aplikatzea inguruan, eta higieanean ere kontu handia izatea.

Keratitisa

Begi barruko infekzio bat da, normalean jatorri bakteriarra duena. Infekzioak korneari eragiten dio, eta arreta berezia jartzea komeni da lentilak erabiltzen dituztenen kasuan

-Sintomak: Begiko mina, narritadura, malkoak, ikusmen lausoa...

-Nola tratatu: kausa oso desberdinak izan daitezkeenez, tratatzeko moduak ere asko aldatzen dira. Kasu guztietan, begia lubrifikatzeak on egingen dio

Herpesa

Herpes Simplex birusak eragindako infekzioa da ohikoena, eta begiko edozein zatiri eragin daki. Kasu askotan, infekzio agenteak urteetan mantendu daiteke gorputzean.

-Sintomak: begiak erretzea, mina, narritadura eta hantura. Batzuetan, buruko mina eta sukarra ere bai

-Nola tratatu: kasu honetan, nahitaezkoa da espezialistarenera joatea. Zonaldearen eta herpesaren intentsitatearen arabera, antibiralak edo antibiotikoak erabili daitezke.





Bertan behera gelditu dira Etsaingo eta Anotzibarko parke eoliko proiektuak

Duela bi urte izan genuen lehen aldiz Nafarroako Gobernuak eraiki nahi zituen bost parke eoliken berri. Orduan jakin genuen, Nafarroa 1 eta 2 proiektuek gure eskualdean eragina izanen zuketela, hain zuzen, Anotzibarren (Odieta) eta Etsainen (Anue). Egitasmoaren aurkako mugimendura eskualdeko herritar ugari batu dira bi urte hauetan, eta badirudi borrokak bere fruituak eman dituela, ingurumen inpaktuagatik parke eoliko proiektu hori bertan behera uztea erabaki baitu orain Iruñeak

2020ko otsailean izan zuten Anotzibarko eta Etsaingo kontzejuetan gobernuak haien lurretan eraikitzea aurreikusten zuen Sacyr enpresaren bi parkeen berri. Anotzibarko kasuan, hasieratik egitasmoaren aurka azaldu zen herria, eta Kontzejuan aho batez erabaki zuten kontra egitea. "Ingurumenean eragingo lukeen inpaktua handia litzateke, sekulako malda baitago hemen errota jarri nahi dituzten tokian, eta

Faunan eta galzorian dauden hegaztiengan kalteak eragingo lituzkete parkeon eraikuntzak

horrelako obra baterako mozketak handiak egin beharko lituzketelako", azaldu zigun hastapenetan Gurutze Santxo herritarrek [199. Pulunpe].

Etsainen, herritarren artean iritzi desberdinak egon diren arren, egia da proiektuak aurrera egin ahala eta hasierako proiektuan zenbait aldaketa tarteko, kontrako jarrera geroz eta indar handiagoa hartzen ari zela. Honela mintzatu zen Iosu Alfaro Bergaretxea etsaindarra Esan Erran irratian, 2021eko irailaren bukaeran: "Hasieran aurkeztu ziguten aurreproiektuarekin arduratu ginen, baina hortik gerora mahai gainean jarri zuten proiektura aldaketa potolo bat egon da, bizilagun askoren artean aurkako joera bultzatu duena". Zein izan zen aldaketa potolo hori? Bada, hasiera batean bizpahiru aire sorgailu planteatzen baziren

Etsain inguruan, gerora bederatzi errota izatera pasa zen proiektua. Anotzibarren, hiru ziren Aldaun mendian eraikitzeak ziren errota.

Ingurumen inpaktu latza medio, bertan behera

2022ko ekainaren 17ko Nafarroako Buletin Ofizialean argitaratu zuten Nafarroa 1 eta 2 eta Nafarroa 4 parkeen ingurumen inpaktuaren balorazio negatiboa. Gure eskualdekoek gain ondoko beste udalerriei ere eraginen lieke proiektuak: Txulapain, Ezkabarte, Olaibar, Esteribar, Eguesibar, Lizoainibar, Erro, Berrioplano, Orkoien, Aranguren eta Galar.

Baina, zergatik erabaki da orain egitasmoa bertan behera uztea? Ingurumen elkarteek argudioei 'arrazoi' eman die, nolabait, Nafarroako Gobernuko Ingurumen Departamenduak. Honela zioen Buletin Ofizialean analisi teknikoaren atalak:

"Navarra 1 eta 2 parke eolikoek lerro bakarra eratzen dute, iparraldetik hegoalderantz 10 km inguruko luzera hartuz. Arga eta Erro ibaien artean dauden gailurrak zeharkatuko ditu, Erroko mendatetik Arga ibairantz egin arte, Zuriain parean. Orografia konplexua duen eremu oihantsu zabala da. Bertan nagusi dira ler gorritz osatutako pinudiak;



Aho betez onartu zuen Anotzibarko Kontzejuak proiektuaren aurka egitea



tarteka, pagoak eta haritzak daude, eta, kasu batzuetan, masa mistoak sortzen dituzte pinuekin. Haize-sorgailuak jarri nahi diren gailurreriak suebakia du ia bere luzera osoan, non zuhaitz-masaren ondotik larreak eta sastrakadiak baitaude. Haranaren beheko aldeetan aziendek aprobetxatzen dituzten larredi eta larre ugari daude; horiek, gainera, dibertsitatea areagotzen dute”.

Horrez gain, faunan, eta bereziki galzorian dauden hegaziengan parkeok izanen luketen eragin kaltegarria ere jaso du ingurumen inpaktuaren balorazioak, hala nola, ugatzari, miru gorriari eta sai arreari eraginen lizkioken kalteak, eta baita fauna hegalarrien urteko migrazioen ibilbidean eraginen luketen langa efektua ere. Behin proiektuek ingurumen inpaktuaren aldetik balorazio negatiboa jaso ondoren, Industria departamenduaren esku zegoen azken iritzia. Ekainaren 25ean jakinarazi zuen honek, definitiboki, proiektuak bertan behera uzteko erabakia hartu zuela.

Herri mobilizazioaren garaipena

Hasieratik parke eolikoaren proiektuen aurka antolatu dira herritar ugari, horren adibide da elkarlanean sortu zuten Haize Berriak plataforma. Hamaika ekimen antolatu dituzte bi urteotako ibilbidean: hitzaldiak, informazio saioak, mendi irteerak, lasterketak, bertso saioak, manifestazioak, kontzentrazioak... Kontuan izatekoa da, gainera, proiektuei alegazioak aurkezteko deia egin zutela plataformatik, horretarako erraztasunak emanez eta baliabideak herritarren eskura jarritz. Bada, deialdiak eman zuten fruiturik: Nafarroa 1 proiektuak 118 alegazio jaso zituen, Nafarroa 2 proiektuak 119, eta Nafarroa 4 proiektuak, berriz, 158.

Behin eta berriz errepikatu dute proiektuon aurkako aktibistek ez daudela

energia berriztagarrien aurka, alderantziz, horiek defendatzen dituztela, baina bestelako eredu bat bultzatuko duten energia berriztagarrien aldekoa dela haien hautua. “Badira alternatibak! Energia berriztagarriak defendatzen ditugu, baina eredu banatuarekin, justuarekin, jasangarriarekin eta lurralde bakoitzaren energia-behar erreletara egokitua”, horixe zioten maiatzaren 28ko manifestaziorako deialdian.

Haize Berriak plataformak poza adierazi zuen Nafarroako Gobernuaren erabakiaren aurrean, baina poz 'zuhurra'. Izan ere, gogorarazi dute antzeko beste egitasmo asko ingurumen inpaktu deklarazio positiboak jasotzen ari direla, eta oraindik ehun bat megaproiektu eraikitzeiko asmoak martxan daudela Nafarroan. “Administrazioari dei egiten diogu, jatorri fosileko energien erabilpena guztiz uzteko planteatzen diren soluzio posibleak ez ditzala inizatiba pribatuen esku utzi, eta energia politika publikoak martxan jartzeko pausoak eman ditzala, gizartearen parte-hartze irekian eta kudeaketa demokratikoan oinarrituta”.



▲ Etsaingo herritarrek, Iruñeko mobilizazioetako batean

Industriaren esku zegoen azken iritzia, eta definitiboki proiektua bertan behera uztea erabaki du

Emakumea herri kirolean

Emakumeek oztopoz betetako ibilbidea izan dute kirol guztietan, eta baita herri kirolean ere, emakumeen lana eta presentzia historikoki nahiko ikusezina eta gutxietsia izan da eta. Gizartearen berdintasunaren aldeko borrokari esker, poliki-poliki, ikusgarritasuna, presentzia zein aitortza irabazi dira, eta profesionaltasunaren inguruko lorpen anitz erdietsi dira. Lan handia gelditzen da, baina erein ziren haziek fruituak eman dituzte eta ematen jarraituko dute.

Orain dela 40 urte, ez zen herri kirolik (orain ezagutzen dugun moduan); apustua zen. Emakumeen arteko lehiak, izatekotan, eguneroko lanek sortutako norgehiagokak izaten ziren. Lanean aritu hala "jokatutakoak" esparru pribatuan eta gehienetan gauzez ospatzen ziren. Apustuari kirolak tokia kendu zion garaian, aurreneko emakumeak bistaratu ziren. Baserriko beharretan aritzen ziren emakume horiek, bai kanpoko lanetan, bai umeen zaintzan, bai etxeko lanetan. Adibide batzuk aipatzearen: Damasa Agirregabiria (orain dela 80 urte baino gehiago 100 kilo jasotzeko abilitadea izan zuen), Lourdes Elortza itzaina (15 proba jokatu zituen Euskal Herrian zehar); Maria Ascension Azeo oiartzuarra (gizonari segan irabazi zion, baserri giroan emakumea prakak jantzita ikustea eskandalua zen garaian); Urtaingo Anttoni (boxeolari famatuaren arreba), Anttoni Ibarra harri-jasotzailea...

Gaur egun, herri kirolean aritzen diren emakume anitz daude Euskal Herri osoan; baita gure hurbilean ere: Maika Ariztegi (Ituren, 1972, aizkolaria eta hainbat herri kirolean aritzen da); Nerea Sorondo (Bera, 1987, arpanean aritua eta aizkoran ari dena); Xanta Sousa (Brasil-Lesaka, txingetan eta aizkoran lehian aritzen da); Saralegi ahizpak (Leitza, aizkorarekin hamaika herrialdetan ibilitakoak), Ainhoa eta Maria Iraizoz ahizpak (Eltsoakoak, trontzan eta lokotx bilketan makina bat txapelketa jokatuak)... Zerrenda luzeagoa izanen litzateke, baina, beharbada, berririk hoberena izanen litzateke honelako zerrendarik egin behar ez izatea: normaltasuna eta benetako berdintasunean biziko ginatkeen seinale, hori bai partidu ederra! Apustua egin dezagun!

Hiztegia

Gutxietsia: menospreciado

Erdietsi: lortu, conseguir

Norgehiagokak: competiciones

Esparru: ámbito



Gure eskualdean ere badira herri kirolean ari diren emakumeak, Iraizoz ahizpak kasu



Urbanizatzeko lanak, Ostitzen

Hasi dira lursail bat urbanizatzeko lanak Ostitzen. Urbanizatutako lanek etxebizitzaren eraikuntzarako aukera emanen dute. Osotara, 23 etxebizitza aurreikusten dira, horietatik zortzi udalak sustatuko dituen babes ofizialekoak izanen lirateke eta lehiaketa publikoan kontratatuko lirateke. Momentuz, dakiguna da bi etxebizitza eta igerileku bat eraikitze lanen lizentzia aurkeztu dutela hainbat norbanakok, baina ez lurren erdia baino gehiagoren jabea den promotoreak.

Urbanizazio lanei dagokionez, konpentsazio batzordeak -lurren jabeek eta udalak osatutakoa- Sasoi enpresari esleitu dio lanen kontratua eta zazpi hilabetez iraungo dute, gehienez. Urbanizatutako lursailak aprobetxamendu publikorako partzelak ere izanen ditu (polikiroldegi bat, eraikin publikoren bat

edo parkeren bat egiteko izaten dira aprobetxamendu publikoko partzelak).



▲ Ostizko urbanizazioa

Izarpen gustu guztientzako aukerak ditugu EGUNERO!!!

Tfnoa.: 848 68 14 00 - 31867 Aroztegi - ATETZKO IBARRA

Hamarretakoak: Menudikoak, Txerri hankak, Tripakiak, Ajoarriero, Arrautzak...

Bermuta: Etorri gure pintxoak beteriko barraz gozatzerara eta dastatu gure etxeko frito berriak.

Eguneko Menua: Etxeko janaria egunero.



Merenduak: Txokolate beroa txurroekin, etxeko tartak, bizkotxoak eta pintxoak.

Ostegunero: Pintxo-pote giro oberenean.

Asteburuak:

Asteburuko Menu berezia km·0 eta karta.



CAMPING - KANPINA

IZARPE

ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA





Xinbili Xanbala haur eskolako gurasoak, hezitzaileen grebaren alde

Maiatzaren 2an hasi zuen greba Nafarroako haur eskolen gehiengoak. Baita gure eskualdekoek ere. Ekainaren 7an, Ultzamako Xinbili Xanbala haur eskolako gurasoak bildu eta pankartak egiten aritu ziren, greba babesteko.

Xinbili Xanbalako 20 bat guraso eta beste hainbeste haur, haur eskoletako langileekin batera, Arraizko plazan bildu eta pankartak egiten aritu ziren, ondoren N-121-A errepidean jarri zituzten, greba babesteko eta hezitzaileen borroka ikustarazteko.

Nafarroako 0-3 plataformak deituta, maiatzaren 2tik greban dira haur eskoletako langileak. Gure eskualdean, lehenengo aste horren ondoren, ostegunero itxi dituzte atea. Ratioen jaitsierak (Europako herrialdeekin konparatuta bikoitza baitira Nafarroan) eta baldintzen hobetzea eskatzen dute, baita umeen segurtasuna eta haiei eskainitako zerbitzua bermatzeko ere. Urteetako aldarrikapenak dira, baina aurten protestak areagotu dituzte. Greba eteteko negoziazio mahai bat osatzeko eskatu diote Gimeno kontseilariari, baina Nafarroako Gobernutik ez dute erantzun baliozgarri eman. Grebarekin jarraituko dute udatik bueltan.





Gartzarongo aska berritu dute lan babestuko kideek

Urtero, eskualdean berritzeko edo moldatzeko premia duten hainbat txokotan lanean aritzen dira Ultzamako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko lan babestuko kideak. Bazterkeria egoeran egon daitezkeenei trebatzeko aukera ematea eta lan munduan sartzen laguntzea du helburu proiektuak. Aurtengoan, besteak beste, Gartzarongo askaren konponketa eta berritze lanetan aritu dira kideak.

Sei lagun daude, momentuz, lan babestuko programaren baitan lanean: hiru gizonezko eta hiru emakumezko. Taldea gidatzen monitore bat aritu da, Gartzarongo obraren kasuan. Dena dela, bertako askako lanez gain, bestelakoak ere egin dituzte azken hilabeteotan, batez ere sasiak garbitzeko lanak: xendak garbitu, hilerri inguruak txukundu...



Gartzarongo askan aritu dira lanean ▲



SOSTENIBILIDAD RURAL LANDA IRAUNKORTASUNA

Afrontando el reto climático en común
Klima-erronkari denon artean aurre eginez

Akonpainamendu teknikoak tokiko entitateentzat "Alkatetzen paktuak klimarako eta energiarako" lantzeko.

Aholkularitza energetikoa tokiko entitateentzat, enpresentzat, energia-komunitateentzat eta herritarrentzat.

Laguntza energia berriztagarrien bidezko autokontsumorako instalazioak tramitatzeko.



NORENTZAT
DA

TOKIKO
ENTITATEAK

HERRI-
TARRAK

EMPRESAK

Argitu zalantzak
zeure lurraldean,
eta ausartu ekimen
iraunkorrenekin

NAFARROAKO MENDIALDEA

Cederna Garalur
Telefonoa: 697 65 56 64
infoenergia@cederna.es
www.cederna.eu

ESTELLERRIA
TEDER Elkartea
www.teder.org

ERDIALDEA
Erdialdeko Tokiko
Ekintzako Taldea
www.navarramedia.es

NAFARROAKO ERRIBERA

EDER Partzuergoa
www.consorcioeder.es



**Andoni Urbistondo,
Aiurrin**

Erlojuaren diktadura

Ostegun arratsa. Suitzako Itzulia ETBn. Bero sapa Suitza aldean, txirrindulari profesionalak latz sufritzen. Watsapean zikloturisten talde batean, Quebrantahuesos lasterketa entzutetsua bertan behera utziko dutela, eta laster egingo dutela ofizial. Erantzun dut. Krixton iskanbila sortuko da, jendeak ez du onartuko. Egin dute ofizial. Idatzi ditut txio pare bat. Burrunba. Euskadi Irratian ere testigantza pare bat bildu dituzte. Ia denak kontra. Moztu zezaketela, goizago atera, egun batzuk lehenago abisatu zezaketela, putada hitza ere bita du bakarren batek...

(...) Erotuta gaude, eta gauza gutxi pasatzen zaizkigu. Ez gara jabetzen 40-43 graduko tenperaturarekin 25 kilometroko mendateak igotzeak edonor heriotzara eraman dezakeela. Heriotzara!!! Zer esanik ez zikloturista diren herritar soilak, hilabetetako entrenamendua egokia izan arren. Gizakion gorputza, bihotza, ez dago baldintza horietan muturreko ahaleginak egitera ohitua, ahalegina ordu askokoa baita, eta berriro diot, muturrekoa. Quebrantahuesos klasikoa egin duen edonork daki hori.

Jendeak hotela hartua zeukan, jai egunak eskatuak, bere imaginarium-ean dena prest: erronka lortu, Quebrantahuesos klasikoa 6, 7 edo zortzi ordutan egin. Proba bukatu, 10 zerbeza edan, eta igandean, etxera bueltatu ostean koadrilako poteoa egin Quebrantahuesos klasiko zikloturistako kamiseta soinean duela, kabitu ezinik, probako xehetasun guztiekin ondokoak aspertuz. Aragoiko eta Biarnoko Pirinioetan antolatzen den proba harrotasun marka delako egiten duten askorentzat, kirol lorpen gorena, orgasmoaren parekoa. Hilabete asko buruan proba hori eduki eta prestatzen jardun, eta bertan behera utzi izanak askoren ego-a, testosterona apaldu du, eta hori onartezina da. 'Zergatik kendu didate jostailua?', pentsatuko zuten askok.

10.000 parte hartzaileen artean egoera larriak gertatuko ziren, ziur. Susto dezente ere bai. Alerta gorriarekin sorospen zerbitzuak beste behar batzuetara bideratu behar dira, baina Quebranta egin nahi zuen zikloturistari horri bost. 'Nik nire Quebranta egin nahi dut, ze bero eta ze demontre' (...)

Sute bat izan da Beuntzako mendi batean

Ekainaren 19ko goizean piztu zen sutea Beuntzako (Atetz) mendian, hain zuzen San Migueltxo eta Beuntzalarrea parajeen artean. Argindarraren zutoin baten ondoko zuhaitz bat erori eta kable bat puskatu zuen, eta badirudi horren ondorioz sortu zela sutea. Beratsaingo eta Beuntzako jendea ingurura hurbildu zen sua itzaltzen laguntzera, eta suhiltzaileak ere azkar iritsi zirenez, segituan kontrolpean izan zuten eta ez zen hedatu.

Kablearen etenaren eta sutearen ondorioz, dena dela, Beuntzan eta Beuntzalarrean argindarrik gabe gelditu ziren zenbait orduz, iluntzeko 21:30ak arte edo. Ondoren, arazoa konpontzea lortu zuten eta normaltasunera bueltatu zen, gertakaria susto txiki batean soilik geldituz.



Argindar kable batek eragin zuen sutea ▲



Suhiltzaileak berehala iritsi ziren sutea sortu zen lekura eta azkar kontrolatu zuten egoera ▲



Esan Erran irratiak denboraldia despeditzeko festa egin zuen

Ekainaren 17an amaitu zen Esan Erran irratiako Egun Ero magazinaren denboraldia, eta 18an irratiako lagunekin bildu eta pesta txiki bat ospatu zuten Aizarozko ostatuan. Egun Ero irailean itzuliko da.

Irratiako lagunei eta sare zabal bati esker ateratzen da aurrera Egun Ero magazina, Esan Erran irratiako saio propioa. Aurtengoan ere, eskualdeko kolaboratzaile sare ederra izan dute, gai desberdin asko lantzeko aukera eman duenak: literatura Patxi Irurzunekin, euskal literatura Ainara Urritzarekin, zinema Maider Urzelairekin, kirolak, krimen nobela Irantzu Perezekin, euskara Felix Altzelairekin, Mexikoko iraultzaren historia Mexikortxotarrekin, bidaiak, nekazaritza eta abeltzaintza Begoña Okiñenarekin, feminismoa, musika Iñaki Larrayozekin, internazionalismoa Txuri Ollorekin, gizarte gaiak, haurren garapena Amaia Legarrarekin... eskerririk asko guztioi, zuek gabe ezinezkoa izanen baitzen irrati bizirik mantentzea!

Eta ikasturteari bukaera behar bezala emateko, azken urteetan egin bezala, festa txiki bat antolatu zuten Aizarozko ostatuan, ekainaren 18an, larunbatekin.

Lehenengo, irratiako lagunon bazkaria, hainbat kolaboratzaile eta lagunekin. Eskerririk asko Gaizkari eta Javiri, ederra zegoen janaria!

Ondoren, 18:30ean, Iruñeko Nahiak Nahik taldeak kontzertu zoragarria eskaini zuen. Irailean itzuliko da Egun Ero irratsaioa eskualdeko kolaboratzaile eta gai berriekin! Bitartean, Esan Erraneko programazioak ez du etenik, Arroza Sareko eta euskal irratietako irratsaio interesgarriak eta musika ere entzungai izanen dira uda osoan.



Errugbi gaupasa, maiatzaren 21ean, Larraintzarren ▲



TXAKUR JANARIA

CARLOS 660781595
Pili 650206699





Bukatu da Anueko emakumeen lehenengo frontenis txapelketa

Ekainaren 12an jokatu ziren Anueko lehen emakumezkoen frontenis txapelketako finalak. Antolatu duten lehen aldia izanda ere, arrakasta handia izan du kirol ekimenak, eta antolatzaileak oso pozik azaldu dira, bai parte-hartzearekin, eta baita jokalariek emandako mailarekin ere. Guztira, 13 bikotek eman zuten izena txapelketan, eta ondokoak izan dira lehen hiru postuetan gelditu direnak.

Txapeldunak Ciganda eta Gubia izan ziren, Alvarez eta Larretxearen aurka finala irabazi ondoren. Hirugarren

postuan, berriz, Martirena eta Saralegi gelditu ziren. Azken hauek eskualdeko frontenis txapelketa gehiagotan ere iritsi izan dira finalera, Imozkoan, esaterako.

Giro ederrean joan da txapelketa, eta baita finalaren eguna ere. Olagueko frontoian jokatu dituzte partida guztiak, eta antolatzaileek espero dute, aurtengoak izan duen harrera ona ikusita, datorren urtean ere errepikatzea eta jende gehiago animatzea.



Lehen hiru postuetan gelditu ziren jokalariek, finalaren egunean ▲



Denok

Bat

Mugikorra nola erabili ikasteko ikastaroa, Rural Kutxaren eskutik

Teknologia ikastaroak, Laguardiara bisita eta ikasturte bukaerakoak ekarri dizkigu ale honetan Denok Bat jubilatuen elkarteak.

Ekainaren 8an izan zen mugikorra nola erabili ikasteko ikastaroa, Larraintzarko bentako areto nagusian. Rural Kutxako teknikariak erakutsi zizkigun mugikorraren erabilerari buruzkoak, batez ere segurtasunez erabiltzeko moduak eta WhatsAppari buruzko gaiak. Tartetxo bat ere izan zen kafe bat hartzeko, eta dena ongi atera zenez, datorren udazkenean beste bat egiteaz hitz egin genuen. Udazkeneko hori kutxazainen eta Ruralviaren erabilerari buruz izanen litzateke.

Ekaineko ateraldia Laguardiara egin genuen, Arabara. Egun beroa suertatu zitzaigun, baina herriak, bere karrika estuekin, babestu gintuen eta itzaletik ibiltzeko aukera eman zigun. Goizean,

bi taldetan banatuta, herriko bi leku garrantzitsuenetakoak ikusi genituen. Alde batetik, Santa Maria de los Reyeseko eliz-ataria, turismo bulegoko teknikariak erakutsi ziguna eta, bestetik, La Abadía de Morata etxe-museoa, bere nagusiak, Faustik, erakutsia. Bertan, gainera, ardo dastaketa ere izan genuen.

Laguardiako Udaletxeko ordularia ikusgarria da. Hainbat ordutan, 14.00etan adibidez, dantzari mekanikoak ikusi daitezke, musikaren laguntzaz, eta txuriz eta gorritz jantziak, noizbait Nafarroako herria izanaren seinale. Erlojuaren ataritik ateratzen dira ordua ematera.

Hori ikusi ondoren bazkaltzera joan ginen. Errioxar janari bikainak dastatu genituen bertako

ardoarekin lagunduta. Arratsaldean herria ikusteko tartearen ondoren itzuli ginen etxera, herri polit bat ikusi genuenaren eta beroari buelta eman genionaren sentsazioarekin.

Uztailerako prestatzen ari gara ordezkariarekin bilera, bazkide berriak egiteko kanpaina aurrera eramateko. Onartua dago zabalduko den triptikoa.

Ohiturari jarraituz, kalderete festa ere egingen da, eta ateraldian Amaiur eta Santxotena ikustera joanen gara. Horren guztiaren berri izanen duzue hurrengo alean. Bitartean osasuntsu egotea opa dizuegu.



Denok Bat
Jubilatuaren Elkarteak



Ikastaroan parte hartu zutenak rural kutxako langileekin



Ordulariko dantzariak ikusi ondoren, udaletxetik jatetxera bidean

Ehunka ikaslek hartu dute parte lehenengo literatur lehiaketan

Guraso elkarteak antolatu du literatur lehiaketa, lehenengo aldiz, eta 160 lan baino gehiago aurkeztu dituzte maila guztietako ikasleek. Euskara bultzatzeko helburuarekin sortu dute egitasmoa, eta, horretarako, asmoa zen ikasleek eskolatik kanpo eta gozatuz euskara lantzea. Batzuek klasean landu dutelako parte hartu dute, beste batzuek idaztea atsegin dutelako, baina elkarrizketatutako saridun guztiek zalantzarik gabe diote heldu den urtean berriz aurkeztuko direla.

166 lan jaso dituzte Larraintzarko ikastetxeko lehenengo literatur lehiaketan, hori da arrakastaren seinalerik handiena. Haur Hezkuntzako hirugarren mailatik, DBHraino. Horietatik zortzik jaso dute saria, erdiak epaimahaiarena, beste erdiak publikoarena. Guraso taldeak martxoan aurkeztu zituen oinarriak, eta, zabaldu, irakasleen laguntzarekin. Ikasleek maiatzaren lehenera arte izan dute lanak aurkezteko aukera.

Egitasmo honen atzean Guraso taldeko batzordeko Virginia Domeño izan da, batez ere: "Nik aspaldi nuen gogoia horrelako zerbait egiteko, idaztea eta irakurtzea gustatzen zait, batez ere irakurtzea. Honezkeroko oso pozik gaude, aurkeztu den kopuruarengatik eta irakasleen laguntzarengatik. Heldu den urtean, ikusita aurtengoa nola aterata den, denbora gehiagorekin eta hobeki zehaztuta aurkeztu nahi ditugu oinarriak".

Helburua, euskara bultzatzea

Noizbait Pulunpen ere landu izan dugu gaia, eta jakina da euskararen erabilerarekin arazoa dagoela. Hain zuzen ere, euskara bultzatzea izan da lehiaketaren helburua. Virginia Domeño: "Helburua euskara bultzatzea izan da, baina euskara maitatzea ere

bai: klasetik kanpo, disfrutatuz, lasai... hain azkar doan mundu honetan paper bat hartuta eta idatziz...".

Aurten, lehenengo edizioa izanda, parte-hartzearekin nahiko pozik daude. Baina, hurrengora begira, euskararen maila gehiago lantzea nahiko lukete: "Datorren urtean literaturari ere garrantzi gehiago eman nahi genioke, euskararen erabilerari, polit idazteari...". Eta, bestetik, etxera ere euskara eramateko aitzakia izatea bada asmoa, lehiaketa familiei zabalduz: "Batzuek etxean landu dute gurasoekin. Hurrengo edizioan hori ere bultzatu nahi dugu, familian landu daitekeen zerbait dela. Ideia polita iruditzen zaigu".

Idazkera eta ilustrazioa

Ziklo guztietako haurrei zuzendutako lehiaketa izan da. Haur Hezkuntzatik hasita. Virginia Domeño: "Txikiei ere aukera eman nahi genien, eta ilustrazioa lantzeko aukera eman genien. Horrela, lehiaketak etapa guztiak hartu ditu. Ilustrazioetan aukera ematen genien hitzen bat ere jartzeko, marrazkia eta hitza. Klasean egin dute, eta taldeka".

Gaia txapela izan zen, Domeñok irakurritako testu batetik bururatu

zitzaien: "Kasualitatez, BERRIAN Kirmen Uriberen testu bat irakurri nuen, txapelari buruzkoa. Guk identitatearekin eta euskal kulturarekin lotzen genuen, baina ipuinak irakurtzean konturatu ginen batzuek txapela gaztelerazko "gorro" gisa hartu dutela, buruan jartzeko edozein txapel ulertu dutela. Haien nola interpretatu zuten harritu gintuen. Konturatu ginen txapela gutxi erabiltzen dela, gaur egun. Ez dago gaizki beste bide batetik eraman izana, baina harritu gintuen".

Zortzi saridun

Esan bezala, ziklo guztietan hartu dute parte. Sariak lau kategoriatan banatu dituzte: Haur Hezkuntza alde batetik, Lehen Hezkuntzako lehenengo hiru mailak ondoren, eta Lehen Hezkuntzako azken hiru mailak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako amaiteko.

Kategoria bakoitzean bi sari banatu dira, epaimahaiak emandako saria eta publikoak emandakoa. Horretarako, alde batetik, epaimahai osatu zen: Felix Altzelairekin, euskara teknikariarekin; Patxi Irurzunekin, liburuzainarekin; Maite Mutuberria ilustratzaile ultzamarrarekin; Patxi Moreno irakaslearekin, Nerea Mariezkurrenarekin, irakasle ez diren langileen ordezkariarekin;



eta Ruben Ruiz idazle eta irakasle ohiarekin. Patxi Irurtzun bosgarren eta seigarren mailan aurkeztutako lanen epailea izan da, eta oso esperientzia polita izan dela esan digu: "Gaiak umeen irudimena piztu zuen, ipuinetan txapela magikoak, bidaiatzekoak, beste pertsona bihurtzeko superbotoerak zituztenak aurkitu nituen...".

Bestetik, herri bozketa ere egin zen, internet bidez, publikoaren sariak banatzeko, eta 50 bozka jaso zituzten.



Irabazleak eta ipuinak irakurtzeko aukera duezue Sustraiak -en blogean.



**Kattalin Peñalver:
Laranja koloreko txapela**

"Irakasleak orijinala izatea esan zigun eta hori bururatu zitzaidan. Ezberdina izatearen balioa transmititu nahi nuen pixka bat.

Eskolan ipuinak idatzi ditugu maiz eta txapelketetara aurkeztu gara noizbait, baina inoiz ez dugu ezer irabazi. Oraingo honetan, bai. Ez nuen espero, ez, nik klasean nolabait behartu gintuztelako idatzi nuen, nahiz eta gustura egin nuen eh, baina ez nuen batere espero irabaztea. Nire izena entzun nuenean harrirituta gelditu nintzen, geldirik".



**Intza Izurdiaga Santxo:
Bigarren bizitzako objektua**

"Txikitan ipuin bat idatzi nuen, baina orduan niretzat bakarrik egin nuen. Gustatzen zait idaztea eta horregatik aurkeztu nahi nuen honetan. Pozik jarri nintzen jakin nuenean irabazi nuela.

Gaia txapela zen, eta, orduan, bururatu zitzaidan objektuei bigarren bizitza bat eman behar zaienez, beste aukera bat, ba txapel bati ere beste aukera bat ematen ahal zaiola".



Irati Otegi Irure:

Aitona

"Nire bi aitonekin gogoratu nintzen, batzuetan txapela eramaten dutelako. Ez nuen espero, sorpresa hartu nuen eta asko poztu nintzen, etxean eta klasean ere asko poztu ziren.

Eskolan banatu zizkiguten sariak. Gu han geunden eta irabazleen izenak esaten joan ziren eta atera behar zinen saria hartzera. Niri lotsa eman zidan ateratzeak (barreak). Nire klasekideek nire izena oihukatu zuten saria jasotzen nuen bitartean, animoak emanez. Sariarekin lagunak gonbidatuko ditut zinemara".

**Ekia Iurre Subies:
Txapelaren ausardia**

Burura etorri zitzaidan beti izan nahi dudala denboraren makina bat. Eta lehen euskaraz ezin zenez hitz egin, ba bi gauzak lotu nituen eta hori bururatu zitzaidan.

Hasieran zalantza asko izan nituen baina nire klasekideek asko animatu zidaten esanez irabazi nezakeela, orduan, irabazi nuenean, espero nuen, baina, aldi berean, ez. Bi sentimenduak batera izan nituen. Asko poztu nintzen.

Asko gustatzen zait idaztea, etxean ipuin asko idazten ditut, eta gero eskolara eramaten ditut eta nire klasekideei asko gustatzen zaizkie".



Maika Iraizoz ultzamarra, errugbian



Ezk.-esk. osu, Maten, Andoni, Ariadna eta Maialen.



Ezk.-esk. Ekhiñe, Hegoi, Urko eta Martín.



Aizarozko frontenis txapelketako partaide guztiak



Arainotzen



Edurne Gerendaiain,
Egun Ero irratsaioko zozketako irabazletako bat



Santurben



Santurben zikiroa erretzen



Larraitzarko eskubaloi taldeko jokalariaik, eskubaloi egunean. Entrenatzaileari agurra ere egin zioten.



Saioa Otxandorena lizasoarra, Montevideon euskara irakasle

Munduko txoko desberdinetan euskara eta euskal kulturaren ikastaroak ematen ditu Etxepare institutuak, eta irakurle gisa, haiekin ari da lanean martxoaz geroztik Saioa Otxandorena Satrustegi ultzamarra. Uruguai hiriburuaz eta hango bizitzaz gehiago jakiteko gogoz, elkarriketa egin genion irratian, eta Pulunpeko orriotara ere ekarri nahi izan dugu

Azaldu iezaguzu, nola bukatu duzu Montevideon?

Martxo hasieran iritsi nintzen hona, hemen ikasturte hasiera orduan izaten baita. Hor orain uda partean zaudete, baina hemen neguan sartzen ari gara! Euskara klaseak ematera etorri nintzen, euskara eta euskal kultura irakastera, irakurle gisa, Montevideoko unibertsitatera.

Eta nork ikasten du euskara eta euskal kultura Uruguain?

Denetik dago: badaude familiagatik interesa dutenak, eta bestela ere bai. Hemen, hezkuntza publikoa da eta unibertsitatea doakoa, eta hor sortzen dira hizkuntzak ikasteko zerrenda batzuk. Normalean, ikasle

gehienak dituztenak ingelesa, frantsesa eta portugesa izaten dira, baina batzuetan horietan plazarik lortzen ez dutenak ere sartzen dira euskarari. Beraz, profila oso zabala da!

Nola deskribatuko zenuke Montevideo?

Guretzat oso hiri handia da, baina bertakoek diote txikia dela. Hor ere kultura aldaketa dago, izan ere, Hego Amerikako hiri bat izateko egia da txikia dela, eta hemen egonda ere sentazio hori duzu, hiri txikia dela, edo behintzat, badaudela konexioak jendearen artean, badago horrelako harreman bat. Eta, horrez gain, hain handia izateko, oso hiri lasaia da. Hemengo jendea oso lasaia da, eta

erritmoa ere antzera, nahiko lasaia. Hona etorri baino lehen Buenos Airesen izan nintzen, eta aldaketa handia izan zen. Hura bai dela hiri oso handia, dena oso azkar doa... eta hona etortzerakoan, sentazioa hori izan zen: bai gustura!

Nolako da hango bizitza, zer egiten dute aisialdian...?

Oso familia zaleak dira, asko elkartzen dira familian eta lagun taldeetan. Oso gustuko dute, adibidez, errekiak egitea: parrillan haragia, barazkiak edo dena delakoa erretzea, eta horren bueltan elkartzea. Bazkaltzeko, igandeetan... Eta, bestetik, badago beste tradizio nahiko berezi bat hemen, matearena. Hori ere oso tipikoa da, matea edatea, eta askotan joaten dira Rio de Platan dagoen ranbla luze-luzera ilunabarra ikustera, matearekin.

Matearen erritual oso bat da, ezta?

Bai, tira, esaten dutenez, pandemiarekin matea konpartitzearena murriztu egin da, baina nik bisitu dut, beraz, oraindik ez da erabat galdu. Niri harrizten nauena da kaletik jende asko matearekin joaten dela, eta nire ustez hori bada nolabait lehen aipatzen genuen lasaitasun horren sinbolo, hiritik termoa besazpian hartuta eta matearekin joatea...



Montevideoko unibertsitatean euskara eta euskal kultura irakasten dituzten lizasoarrak



▼ Iluntzeetan, ranbla inguruan elkartzen da jendea matea hartzera Montevideon



Izan duzu hiritik ateratzeko aukera?

Bai, baina Uruguai oraindik ez dut asko ezagutu. Aste Santuan Argentina aldetik ibili ginen, iparraldea, Iguazu eta inguru horietatik. Uruguain gutxi ezagutu dut, momentuz, oraindik negua da eta ikasturteari martxa hartzen ari naitzaio; eta, beraz, udaberrirako utziko ditut bidaia horiek. Dena dela, Salto probintzian eta Punta del Esten egon naiz, hau nahiko famatua da hondartza dagoelako eta turismoari begira ezaguna delako.

Eta, nolakoa da hango paisaia?

Ekialdeko parte guztia hondartzak dira, surf asko egiten da, eta hondartzako bizitza dute han. Gero, barnealdean, zelaiak dira denak. Nire ustez hori da Uruguai: kilometroak eta kilometroak ikus ditzakezu etxerik gabe, animalia gutxi batzuekin... nik askotan pentsatzen dut Ultzama bezala dela hau, baina makroan! Bai, bai, etxean bezala sentitzen naiz! (barreak)

Jendea nolakoa dela esanen zenuke? Argentinarek beti oso irekiak izateko fama dute, ez dakit Uruguain antzekoa den...

“ Hain handia izateko, hiri oso lasaia da Montevideo ”

Estereotipoak dira askotan, baina tira, bai, nahiko irekiak dira. Dena dela, esanen nuke guk argentinarrak eta uruguaidarrak nahasten ditugula askotan, eta egia da antza badutela, Uruguai sortu baino lehen Rio de Plataren parte baitzen, baina haiek asko nabarmentzen dute desberdintasuna, batez ere Buenos Airesekoekin alderatuta. Buenos Airesekoek badute harro fama pixka bat, eta hemengoak umilagoak dira. Bai, irekiak dira, beti laguntzeko prest daude, beti oso eskuzabal hartzen zaituzte. Eta lasaiak, batez ere lasaiak direla esanen nuke.

Noiz arte geldituko zara Montevideon?

Printzipioz, ikasturte osoa egingen dut hemen. Azaroan bukatzen da hemen ikasturtea, hor hemengo udan sartuko gara, eta orduan dut asmoa pixka bat bidaiatzeko.

Inauteriak Montevideon

Otxandorenak aipatu digunez, otsaileko hilabete osoan inauteriak ospatzen dira Montevideon, inguru haietan oso ospetsuak direnak. Urte osoan antzerki modukoak prestatzen joaten dira garai horretarako. Murga izena dute antzerki horiek, eta horrekin batera, candombe izeneko musika estiloa da inauterietako protagonista: esklabizatutako jendeak sortu zuen musika estilo tradizionala da candombea.



Ilarregiko heriotza

Orain 101 urte gertatu zen

Honelaxe kontatu zidan aspaldian, Ilarregin urte batzuz bizitu zen gizon batek, ia-ia hitzez hitz gorde nuena:

Ilarregiko **Urdintxoneko** semea zen Ramón Oiz. 18 urte besterik ez zituen Ilarregin gertaera latz hura gertatu zenean.

Nekazariak "itxiak" izaki eta bide bat estutu egin omen zuten, gurdia pasatzeko ia tokirik utzi gabe. Orduan, Urdintxonekoak gurdia zabal-zabal kargatu eta hesiak puskatu omen zituzten. Ilarregiko Errota ondoan zen bide hori.

Horrela, haserre gogorra izan omen zuen Ramon Oiz-ek Bentako Juan Ignacio-rekin.

Ramon etxera etorri gurdiarekin eta aitari kontatu zion dena. Bigarren bidaia egin behar zuela eta, aitak:

- **Badaezpada eraman ezak eskopeta.**

Eskopeta uztarri gainean, larrupean, gordeta eraman zuen.

Bai bestea ere atera. Eta zer egin du? Hau ere eskopeta eskutan zuela atera. Alperrik hala ere, deskargatua zela jakin baitzen gero.

Alto bota dio, eta Urdintxo gelditu behar nahi eta nahiez. Baina, hau, poliki-poliki, atzeraka-atzeraka, idien buruetara, eta di-da batean zuen eskopeta atera eta tiroz seko bota zuen Fermin. Bi tiro eman zizkion noski.

Urdintxori kartzela kondena eman zioten eta 8 urte egin zituen barnean. Zurgingoan ikasi zuen bertan.

Kartzelatik etxera, eta urte batzuk Ilarregin egin zituen.

Horrelako herri ttiki batean nolako egoera ezta? Hiltzailea eta hilen familia hain leku estuan!



▲ Ilarregiko eliza. Hemen izan ziren Fermin Erbiti Aranoren elizkizunak, 34 urteko mutilarenak.

Kontrabandoan eta estraperloan ere ibiltzen zen eta moto bat bazuen eta kanpora asko ateratzen zen.

Zian etxe bat erosi eta han egin zituen azken urteak.

Honeraino, hitz gutxiz, ederki kontatutako gertaera. Hala ere esan behar da, lehen urteak joan ahala, gauzak lausotzen hasten direnean, kontakizunari zerbait eransteke arriskua ere izaten

dela. Aunitzetan, kontakizuna borobiltzeko edo. Hemen ere, eskopeta deskargatuarenak indarra damaio kontakizunari. Eskopeta hutsaz, hara nolako atsotitza erabiltzen zen Oskotzen: eskopeta hutsek bi gizon ikaratzen ditu, beteak bat. Paradoxa polita, Ilarregiko gertakizun honi gehitzeko. Baina zinez, ez ziren gauzak horrela izan.



Epaketan honela ageri da gertatutakoa

Gertakaria 1921eko martxoaren 26an izan zen eta hurrengo urtean, 1922ko apirilaren 21, 22 et 23an izan zen Iruñeko Auzitegian epaiketa. Beraz, hiru egun iraun zuen epaiketak.

Eta lehen egunean gertatukoaren berri eman zuen fiskalak eta xeheki kontatu zuen:

Atsaldeko seiak zirenean, Ilarregiko Bentako nagusia, Juan Ignacio Erbiti Barberia, bere bi seme-alabekin ari zen lanean alorrean, **Errotaldeko** alorrean hain zuzen. Alor honen kontrako bide batetik pasatu ziren Oitz Etxeberria anaiak, Pedro Miguel, Ramon, eta Bernardo (20, 18 eta 14 urtekoak) beren idi pareta eta gurdiaekin. Eta, hain zuzen, Oiztarrak haserre baitziren pasabideko deretxoa zutela eta, Aranotarrak egin zuten hesia hausten hasi ziren eta 25 metroan bota zuren lurrera. Juan Ignacio Erbiti eta bere alaba Martina joan zitzaizkienean eragoztera, Pedro Miguelek eskutan estaka bat zuela eraso zien, biak kolpatuz; lehenari buruan eta gorputzean joz, 12 egun behar izanik sendatzeko eta Martinari parietalean 4 zentimetroko zauri larria, zeina sendatzeko 48 egun behar izan baitzituen.

Aita eta arreba horrela kolpeka zerabiltzala ikustean, Fermin Erbiti Arano ere lasterka hurbildu zen laguntzeko asmotan, baina Ramonek eskuetan zeraman eskopeta altxatu eta tiro egin zion, zauritu ez bazuen ere. Baina Fermini, bizkarra eman eta lasterka ihesari eman zionean, Ramonek beste tiro bat bota atzetik eta larriki zauritu zuen sakroan, sabelean haustura larriak eraginez; eta peritonitisa hedatu eta biharamunean, goizeko ordu batean hil zen gizajoa.

Hau zen gertatua. Jakina, bi anaia prozesatuak, beren burua defendatu behar eta, honela azaldu zuten azaldu beharrekoa beren abokatuaren bidez:

Probokazioa Erbititarrek hasi zutela, eta Pedro Miguel Oitzek ez zuela deusetan parte hartu; heriotza eta zauri guziak Ramonek egin zituela, alegia. Eta guzia bere burua defendatzeko egin zuela. Eta kontutan hartzeko haserrearen beroa eta probokazioa.

Kaltetuek bi anaiak akusatu zituzten, Ramon hiltzailea bezala eta Pedro Miguel Martina jotzeaz. Azken honen kasuan, gainera emakumea jo izana kontutan hartzeko eskatu zuten. Sexu gutxiespena, larrigarri bezala hartzeko.

Sententzia labur bildua:

Epaillek arduradun bakartzat jo zuten Ramon Oitz, egun horretan gertatu guziena:

-Ferminen heriotzarena.

-Juan Ignaciok eta Martinak izan zituzten zauriena.

-Lizentziarik gabeko arma ibili izanarena.

-Hesietan egindako kalteena.

-Gainera, kontu honetan guzian aringarri bezala jo zituzten haserrearen beroa eta Erbititarren probokazioa; azken honetan gaineratu zuten ez zela sexu gutxiespenik izan.

Horrela bada,

-12 urteko kartzela zigorra eta 5.000 pztako indemnizazioa hilaren oinordekoei eman beharra ezarri zitoten Ramoni.

-Martina jotzeagatik, berriz, 4 hilabeteko kartzela eta 200 pztako indemnizazioa.

-Lizentziarik gabeko armarengatik,

50 pztako multa.

-Eta Juan Ignacioren egin zauriez eta alorrean egin kalteez (hesia botatzea) Ultzamako Bake Epaitegiaren esku uztea.

Bestalde, esan, Pedro Miguel Oitz absolbitua izan zela (Hori zuten nahi lehen momentutik Oiztarrak, Ramon egin zedin denen kargu, alegia. Eta hala izan zen)



Txurdan

- **Hiztegia**
- **Itxia.** Gurean irentsi adiera du.
- Tragón.
- **Lausotu:** gardena eta garbia dagoena hautsez edo zikindu. Edo denborarekin erdi atzendu.
- **Damaio.** Ematen dio (Aditz trinkoa)
- **Atsotitza:** refrán.
- **Paradoxa:** Iduriz logikaren kontrakoa dena.
- **Epaillea:** Juez.
- **Epaiketa:** Juizioa.
- **Auzitegia:** Juzgadura.
- **Parietala:** Buruaren bi saihetseko hezur bakoitza.
- **Sakroa:** Sacro. Bizkar hezuraren bukaerako zatia (5 orno edo bertebratu ditu)
- **Gutxiespena:** desprezioa.
- **Larrigarria:** agravante gazteleraz.
- **Aringarria:** atenuante gazteleraz.
- **Ezarri:** jarri, ipini.
- **Bake Epaitegia:** Juzgado de Paz.
- **Esan ere esan dit.** También me ha dicho. Erderazko esaera hori horrela esan behar da. Modu zuzen bakarra da.



Beste kontu batzuk

1.-Nonbait, jendeari sententzia arin samarra iduritu zitzaion. Eta bakarren batek esan ere esan dit Ilarregiko apezaren laguntza izan zutela. Apez hori Don Pedro Iraizotz Landiribar zen, nahiz ordurako Larraintzarko parrokiara alde egina izan (Alkozko Etxeberriko maistarretxekoa)

2.-Heriotza hau gertatu zenean, Ilarregin apez, Don Blas Fagoaga Ariztia zegoen, Erratzuko Etxebeltzekoa, ordenatu berria. Ordu horretan Auzan ari omen zen pilotan. Apez sartu berri batentzat kolpea ikaragarria.

Ilarregin denbora laburra egin zuen eta gerora Seminarioko irakasle famatua izan zen. Eta euskaltzale handia.

3.-Juan Ignacio Erbiti Barberia, hilaren aita, Ilarregiko Erramunetik Bentara joana zen. Eta andrea Beruetekoa zuen, Francisca Arano Mugiro, Mitxitonekoa.

4.-Oitz anaiek ere ama basaburuarra zuten, Francisca Etxeberria Mugiro, Ihabengo Arotzeneko alaba (Bi emakume hauek bigarren deitura Mugiro zuten. Ahaideak ote ziren? Ez dugu azterketarik egin)



Txurdan



▲ Ilarregiko benta. Honi esaten zioten benta. Geroztik, gerra ondoren egin zuten Suarbeko bidegurutzean dagoen benta.

Zorionak Zorionak!

Zorionak Ione!



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com



Zorionak Maika!



Zorionak Olia eta Oihan!



Enbor bereko zuhaitz adaxka gaztea

Berueteko Txasenekoa semea da Manu Alvarez Galarza. Zuhaitz adaxka gaztea, bai, gurasoen jardunari eutsi diona, baina poliki-poliki bere bidea hartzen doana. Ingenieritza agronomoa ikasi zuen, eta praktikak bulego batean egin ondoren, argi zuen hori ez zela berarendako, eta sagardotegia hartzeko erabakia hartu zuen. Orain, horretan ari da, oraindik gurasoen laguntzarekin. Aldi berean, bizikletazalea, MTB Basaburua taldearen sortzaileetako bat da eta dozena erdi bidexka baino gehiago zabaldu dituzte, honezkero, inguruko mendietan.

Paper gutxi batzuen esperoan, lekukotza hartu die gurasoei Manu Alvarez Galarzak. Hain zuzen ere, Berueteko Txasenekoa Bordako sagardotegiari eustea erabaki du. Duela 30 urte baino gehiago zabaldu zuten gurasoek, eta bertan zerbitzari eta parrillero gisa urteetan lagundu ondoren, 25 urteko Manu hartu du orain. "Aurten asko lagundu didate baina pixkanaka-pixkanaka ea bidaltzen ditugun gurasoak ere etxetik! (barreak). Sagastien maneiak badu zerikusia ikasketekin baina ostalaritza beste mundu bat da, guztiz. Gehien kostatzen dena, paperak eta kontuak eramatea. Amak laguntzen dit horretan, atzean daukat erabat, eta eskerrak!".



▲ Manu Alvarez Marokon

Bide berriak

Aitaren jakin-mina ere jaso du Manu Alvarezek, eta horregatik, gauza berriak probatzen ari da sagardotegian. Adibidez, lupulo sagardoa: "2019an hasi nintzen horrekin. Lehenengoan ez zitzaidan ongi atera baina ideia ona zela ikusi nuen eta hobetu zitekeela, aurtengoarekin pozik nago". Baita Suzko sagardoa ere: "Horretarako heren bat errebatatu genuen sagar zukua, eta orduan azukre gehiago kontzentratzen da. Ondoren, fermentatu egin behar da, alkohol gehiagorekin eta gozoagoa izaten da. Itxura ona du. Hori aitaren ideia izan zen. Duela urte pare bat kongresu batera joan ginen Kursaalera. Mundu guztiko sagardoak ikusi genituen hor, izotz sagardoa, suzko sagardoa eta lupulatuak, tartean. Kopiatzea, funtzionatzen badu, ongi dago (barreak).

Hurrengo urratsa txakolina ekoizten hastea izatea nahiko luke: "Bideratuta nuen, paperak eginak eta entregatuta, eta orduan esan zidaten baimen bat falta zitzaidala. Beraz, hurrengo urtean hasiko naiz, ia prest daukat dena".

Bizikletaz

Bide berriak sagardotegian, eta baita bi gurpilengainean ere: "Lehen herrira jaisteko besterik ez nuen erabiltzen. Gero, Basaburuko BTT

egiten hasi ziren, osabari bizikleta txar bat eskatu eta kristorena gozatu nuen". Duela bost bat urte zaletu zen bizikletarekin, eta, horregatik, MTB Basaburua beste hiru lagunekin osatu, eta bidexkak garbitzen eta seinalizatzen ari dira. Honezkero, zortzi bat txukundu dituzte. Azkenekoak, Lauburu eta uztailan zabalduko den Basajaun bidexkak: "Gero, proiektu gehiago ditugu buruan baina momentuz egindakoak ongi mantendu nahi ditugu. Horiek mantentzeko gai bagara, egingo dugu besteren bat".

Bizikletak, gainera, atzerrira bidaiatzeko aukera eman dio, Marokora eramanez baitzuen maiatzean: "Han Titan Desert deituriko ekitaldia egiten dute. Egunetako karrera da, basamortuan. Almerian ere egin zuten, 2020an, mugak itxita zeudenean. Orduan, Cabo de Gata parke nazionalan zenez, ezin zen lur orotariko ibilgailuarekin markatu. Bi lagun behar zituzten bizikletaz. 2020an markatu zutenak kristoren desastrea egin omen zuten. Lagun bat dut sei urte bertan laguntzaile daramatzana, eta hark proposatu zidan. Ideia asko gustatu zitzaidanez beste lagun bati komentatu nion eta Almerian ibili ginen markatzen. Ongi egin omen genuen eta aurten berriz ere deitu ziguten Marokora joateko, baina han ia lur orotariko ibilgailuarekin".



Herri honen salbaziorako bide bakarra dago

Bitoriano Gandiagak idatzi zituen poemetako bat ekarriko dugu gure orri honetara:

Hemen

**euskaldun izatea bezalako
gudaririk ez dago.**

**Hemen euskaraz irakurri
eta euskaraz idaztea bezalako
iraultzailek ez dago.**

Hemen

**euskara indartzea bezalako
indar politikorik ez dago.**

Hemen ez dago

**euskara adinako desfiorik
inperio zurrupariaren
aurka.**

Hemen ez dago

**euskara adinako
askatasunaren aldeko
itxarobiderik.**

Desafio handiena euskara omen, eta askatasunaren aldeko itxaropen bizkorrena ere bai. Hori da poetak dioena. Eta herri honek zerbait behar badu, askatasuna da, bere buruaren jabe izatea. Arrainak ura bezainbat, nahi eta nahiezkoa, herri izaten segitzeko.

Poetak dena esan du: gudari, iraultzaile, desafio, askatasun... baina, euskararik gabe ezinezkoa da. Itxaropena ez Ameriketan eta ez Afrikan. Hemen bai, esku-eskura duzu itxaropen bakarra: euskara (ikasi eta berrikasi, ibili eta erabili, euskaraz jantzi eta euskaraz erantzi... itxaropenerako beste bidezidorrik ez da. Denak izan dira antzuak, sekulorun sekulotan)

Laster bideak, autobiak eta autopistak utz, eta zatoz bide zuzenera, ardo frexkoan dugun bide bakarrera. Ardo frexko ederra gaurkoa, ekarri duguna, Bitoriano Gandiaga Artetxek, Mendatako poetak aspaldian oparitu ziguna.



Txurdan



Bitoriano Gandiaga, frantsiskotar poeta handia ▲

Hiztegia

Zurruparia: zurrupatzen duena.

Itxarobidea=itxaropena=esperantza.

Jantzi eta erantzi: arropak soinean jarri eta soinetik kendu.

Laster bidea: alcorce

Bidezidorra: sendero, atajo.



Arantzazuko apostolu famatuak. Bitoriano Arantzazun bizitu zen ia bere bizitza guzian. ▲



Euskal iheslari politikoaren bizipenak jaso dituzte Ernesto Pratek eta Jaione Doraiak

Ekainaren 17an Jauntsaratsen izan ziren Ernesto Prat eta Jaione Dorai idazleak, argitaratu berri duten 'Bestaldean' liburua aurkezten. 1960tik 2010era arrazoi politikoak medio ihes egin behar izan duten pertsonen bizipen eta testigantzak jaso dituzte lanean. Egileak gurera heldu zirela aprobetxatuta, elkarrizketa egin genien irratian.

Nondik sortu zen liburu hau idazteko ideia, eta zein helbururekin?

Jaione Dorai: Iheslarien errealitatea nahiko ezkutukoa izan dela iruditzen zitzaigun, ez dela oso ezaguna, eta sumatzen genuen halako kanal edo bitartekoen falta. Horri bueltaka hasi ginen, zein ekarpen egin genezakeen guk pentsatzen, eta azken urteotan hainbat iheslari ezagutzeko aukera izan dugunez, behar horretatik abiatutako proiektua da. Helburua iheslarien errealitateak argitara ematea zen, oso kolektibo zabala eta anitza izanik ere, hamarkada askoan zehar egon dena eta gaur egun oraindik existitzen dena.

Zergatik argitaratu duzue orain?

Ernesto Prat: Orain argitaratzea kasualitate hutsa izan da, ez baita lau egunetan idatzitako liburu bat, animaleko lana egin dugu, 30 lagun baino gehiago elkarrizketatu, dokumentazio lana... ideiarekin hasi ginenetik liburu argitaratu arte

lau urte pasa dira, eta tira, nolabait, liburuaren prozesua orain bukatu dugu. Orain, argitaratzean, beste ibilbide bat hartzen du lanak. Baina orain argitaratzeak ez du garrantzia berezirik izan, ez.

Nola egituratzen da liburu, nola bildu dituzue lekukotza horiek guztiak?

J: Lekukotzak eta hainbat urtetan argitaratutako beste zenbait elementu bildu ditugu, poesiak, eta abar. Liburuaren ardatza ez da lineala, ez dugu kronologikoki antolatu. 60. hamarkadatik goiti ibilbidearen narrazio orokor bat egin nahi genuen, iheslari mota desberdinak eta belaunaldi desberdinetakoak izanda ere, gurutzatu behar izan dituzten ataka edo bidegurutze desberdinen bidez antolatu dugu, horiek erabili ditugu ardatz gisa: lehen atala sorterritik ihes egiteko beharra sortzen den momentu horretatik abiatzen da, eta gero datoz muga eta ate berriak

Ernesto Prat: Oso kolektibo anitza da iheslari politikoena



zeharkatzearena, bidelagunak atzean utzi eta bidelagun berriak topatzeko, bizibideena, herriminarena, errepresioaren itzalarena, elkartasunarena eta sorterrirantz itzultzekoarena.

Garai eta testuinguru desberdinetako iheslarietaz hitz egin duzue. Zer dute guztiak komunean, edo zer errepikatu da testigantzetan?

E: Oso kolektibo anitza da, hamarkada batzuk joan direlako eta egoera anitzak izan direlako, baina baita norberaren ihesaldia oso pertsonala delako ere. Komunean zer duten? Erranen nuke ihes egiterakoan erabaki hori hartzeko beti badela mamu handi bat, torturarena. Zuk erabakitzen duzu ihes egitea baina, ez da libreki hartutako erabakia. Bai 60. hamarkadan eta bai 2010ean, urte horietan guztietan torturak busti du dena, eta torturaren praktikak erabat baldintzatu du sorterritik ospa egiteko erabaki hori.



▲ Apeztegi berrin aurkeztu zuten liburu bi egileek



Duela urtebete probatu eta erabat engantxatu da crossfitera

Intentsitate altuko gimnasia ariketak egitean datza crossfit kirola. Batzuetan, muturrekoak, kaltegarria izan daitekeela uste dute. Iraizotarrak mito hutsa besterik ez dela salatzen du, edozein kirol bezala, neurritz eta ongi ikasiz egiten bada, ez du minik egiteko arriskurik. Pasa den udan lagun baten bitartez probatu ondoren, izena ematea erabaki zuen azaroan. Sei hilabeteren ondoren, sekula pentsatu gabeko gauzak egiteko gai da orain, 80 kiloko pisua altxatzeko, besteak beste.

Zehazki zertan datza crossfita?

Ariketa guztiak intentsitate altuan. Crossfita kaltegarria dela zabaldu da batzuetan, mina hartzea erraza dela, baina hori egiteko moduaren arabera izaten da, kirol guztietan bezala gehiegikerietan bazabiltza, mina har dezakezu.

Imajinatzen dugun bezain gogorra al da?

Ezagutu dudanaren oso ezberdina da. Ni kiroldegira joaten nintzen, makinaren bat egiten nuen eta gero bizikletan edo zintan ematen nuen denbora gehien. Ariketa egiten nuen eta izan nezakeen giharmin pixka bat. Baina crossfitean, nahiz eta oso kirolaria izan, klase batek lur jota uzten zaitu. Batekin bakarrik aste guttikoa egin duzu! (barreak). Hain zuzen ere, apuntatu nintzenez, ordaindutakoarekin

astean bi klasetara joan nintekeen eta bat libre (monitorerik gabe) hartu nezakeen. Bada, ni klase bakarrera joaten nintzen, lehertuta egoten bainintzen aste gutzian. Asteazkenean joan eta igandera arte lehertuta. Baina denetara bezala, ohitu egiten zara. Orain hiru egunez joaten naiz gutxienez, batzuetan lau, eta hurrengo egunean mugitu naiteke! (barreak).

Zerk engantxatu zintuen?

Ez dakit! Nik askotan esaten dut sekta bat garela, benetan. Lur jota uzten zaitu baina gero hain ongi sentitzen zara... nik uste dut horrek egiten dizula itzultzea. Baita giroak ere, jendea oso-oso jatorra da, orokorrean behintzat. Kiroldegira kaskoekin joatea ohikoa da, Crossfitean, berriz, musika denontzat da, elkar agurtzen diogu

beti, azkenak bukatu arte itxuiten dugu, animoak ematen dizkiogu elkarri... horrek komunitate oso polita egiten du. Niretzako, gainera, terapia psikologikoa ere izan da, klasean sartzen zara eta ordu batez, behintzat, ez duzu beste ezertan pentsatzen. Bai, zerbait badauka engantxatzen zaituena, oso indartsu sentitzen zara eta horrek ere eragiten du. Zure buruarekin lehiatzera ere eramaten zaitu, pasa den asteen sentadillak egin bazenituen 50 kilorekin, 60rekin saiatu nahi duzu hurrengoan...

Askok pentsatu dezakegu inoiz ezingo genuela horrelakorik egin, probatu beharko genuke?

Hori da. Gutxika erritmoa hartzen da. Gure crossfit gunean adin eta gorputz anitzekoak daude, potolotxoak zeudenak eta orain indartsu daudenak, 70 urte dituenak ere badago eta oraindik ere txapelketetan parte hartzen duena, denetarik... Belaunak gaizki dituzula, lasai, ariketa egokituko dizute (baita txapelketetan ere!). Nik ere uste nuen ezin nuela eta orain 80 kilo altxatzen ditut! Horrelakorik egiteko gai izango nintzenik ez nuen uste!

“ **Nik ere uste nuen ezin nuela eta orain 80 kilo altxatzen ditut!** ”



Leire Etxeberria, eskuinean, kiroldegiko lagun batekin



Udako berotik ihes egiteko toki ederra, Anuen

Azken asteetan sufritutako beroari aurre egiteko toki bat proposatuko digu Anuenaturak kolaborazio honetan. Sei kilometroko ibilbidea egin ondoren, Eltzaran edo Eltzarrain ibaian aurkituko dugu.

Olagueko ostatuan egon bazara, agian, arreta deitu dizu han agertzen den ur-jauziaren argazkiak.

Toki hori Anuen dago, Eltzaran edo Eltzarrain izenez ezagutzen den eta gerora Mediano izena eman zaion ibaia hasieran. Ibaiak Lantz eta Anue zeharkatzen ditu eta ibilbidean errekatxo asko jasotzen

ditu ezkeraldetik. Ostitza iritsi baino lehen, Ultzama ibaiarekin bat egiten du.

Udan, ur-emaria murrizten denean, zati batzuk urik gabe gelditzen dira, agertu eta desagertu egiten da, beraz. Hala ere, ur-jauzia mantendu egiten da, eta behean dagoen putzua ere bai.

Putzua sakona da eta ura hotza da, baita eremuko giroa ere. Horregatik, udan edo bero handiko egunetan fresko egoteko oso aproposa da. Sei kilometroko ibilaldia egin behar da horra iristeko.

Lurrera begiratzuz gero, harri mota ezberdinak daudela agerian gelditzen da. Nola sortuko ziren eta noiz?



Anuenatura

Lurrera begiratzuz gero harri mota ezberdinak agertzen zaizkigu



▲ Mediano ibaia hasieran ur-jauzia sortzen da



Ikasturteko balantzea eta hurrengorako abisuak

Ikasturteari errepassoa eman nahi izan dio liburuzainak uda aurreko azken Pulunpen.

Abisuak

Udako ordutegia

Udan liburutegia goizez irekita egongo da, ordutegi honekin:

Astelehenetik ostiralera 10:30etatik 13:30etara

Irakurle klubak

Irakurketa-klubak (gaztelaniaz eta euskaraz) irailean itzuliko dira, eta horietako batean edo bietan parte hartu nahi duenak liburutegia@ultzama.es helbidean izena eman behar baino ez du egin behar.

Dinamizazio batzordea

Udan atseden hartzen dugun arren, ostiral kulturalen dinamizazio batzordea hileko lehen asteartean biltzen da, 16:30ean, liburutegian. Kultur proposamenak ongi etorriak diren batzorde irekia da. Halaber, ideiak jaso ditugu liburutegia@ultzama.es helbidean.

Kultur ekitaldien balantzea

Urtea hasteko, **Emak Bakia** proiektatu genuen, Oskar Alegriaren lehen filma, komentatzeko bertan egon zena eta Ostiral Kulturaletako aitabitxi ez-ofizial bihurtu dena.

Urtarrilean ere, Txus Pérez Artuchek bisita egin zigun bere **De profesión artista** liburua aurkezteko, Gavilán/Eskrotoren biografia, Tijuana in

blue eta Huajolotesen abeslari gogoangarria, abesti, bideo eta pasadizoekin gogoratzen duguna... Ez da izan hilabete hauetan aurkeztu den liburu bakarra, Garbiñe Larreak ere bisitatu gintuen, **Sendabelarrek dakiten**arekin landareen mundu zirrargarria eta haien erabilera medizinalak deskubritu zizkigun; edo Kairaba elkarteko emakume afrikarrek Mariama Ba idazle

senegaldarraren **Nire gutun luzeena** eleberraren harira izandako bizipenak komentatu zizkiguten. Eta poesia ere ez da falta izan, apirilean ospatutako Slam Poetry-ren eskutik, zeinetan poeta batzuk adiskidetasunez lehiatu ziren bere poemak irakurriz. Oso arratsalde alaia izan zen, eta, gainera, M'Arteko kantua zuzenean entzuteko aukera izan genuen.





Ohikoa den bezala, musikak presentzia handia izan du kultur programazioan, eta Larrantzarko aretotik Velutine, Makusai, JAC edo Luter igaro dira, azken hau kontzertu ahaztezin batean, elurra gorabehera, non Kutxi Romero (Marea) ere igo zen eskenatokira, aste batzuk geroago bere kantu eta gonbidatuekin (Aaron semea tartean) itzuliko zena. Beste arratsalde ahaztezin bat. Gainera, Las Tipex taldeak kontzertu dibertigarria eskaini zuen Aroztegiko kanpinean maiatzean, eta Amati abesbatzak kontzertua eman zuen Iraizozko elizan.

Txikientzat ere musika izan dugu, Musas y Fusasen IPUINKANTARIAK taldearen eskutik. Eta ipuin kontalariak (Bakarne Atxukarrok euskal mitologiari buruz Lantzen eskainitakoa bezala), pintura tailerrak...

Ez dira falta izan, halaber, zinema eta dokumentalak, Helena Bengoetxearen *Petrus* bezalako proiektioekin, ez eta aktulitate gaiak eta hurbilekoak dituzten mahai-inguruak ere, hala nola lehen sektorearen egoera...

Eta hileroko erakusketak, hala nola Iñaki Atxa argazkilariarena, Aitzol de Carlos edo Andrés Gimeno artistena, edo Andres Etxeberriak bere artzaintza eta nekazaritza tresnei eta zurezko objektu artistikoei egindako bisita gidatua. Guztira, hogeita hamar bat jarduera, irailaren erdialdean berrekingo diren ostiral kulturaletarako.



2022ko apirila

2022ko apirilean gure alderdian izan diren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

Jaiotzak:

LANTZ

Carlos Ariztegi Lakuntza, Iñaki eta Virginiaren semea, maiatzaren 3an sortu zen.



▲ Aspaldixkoan ez genuen horrelako berririk Lantzen. Ongi etorri Carlos!

“
Zorionak gurasoei
”

Ezkontzak:

ULTZAMA

Alkotz

Peio Etxeberria Vittorini eta Uxua Diez de Ultzurrun Barberena, maiatzaren 20an ezkondu ziren. Gizongaia Zenozkoa eta andregai Ultzamako Bentakoa.



▲ Peio eta Uxua

Auza

Ioritz Agirre Retegi eta Maria Goñi Iribar, maiatzaren 14an ezkondu ziren. Bai gizongaia eta bai andregai auzarrak ditugu.



▲ Ioritz eta Maria

“
Mila zorion
ezkonberriei
”

Heriotzak:

IMOTZ

Urritza

Domingo Olaetxea Barberia, **Karakoetxeko** nagusia, maiatzaren 12an hil zen, 89 urtetan.



▲ Domingo Olaetxea

ULTZAMA

Lozen

Jesus Larraia Ibarra, **Etxezarreko** semea, maiatzaren 22an hil zen, 92 urtetan.



▲ Jesus Larraia

“
Zuen maitasuna
gelditzen zaiguna
”

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karricolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



VIII. ARGAZKI LEHIAKETA



*Joan den urteko irabazlea,
Julen Domeka Renedo Beunza*

1. SARIA: 300€
2. SARIA: 200€
3. SARIA: 100€

ZORTZIGARREN ARGAZKI LEHIAKETA

Ametza Elkarteak ZORTZIGARREN argazki lehiaketa egingen du aurten.

Hemen bizi den edozeinek hartu dezake parte eta originalak igortzeko epea **irailaren 17an** bukatzen da.

Aurten ere fotografia gaia zabala da, baina zerbait mugatu dugu.

Paisaia soilak ez dira onartuko. **Jendea, bertako lanak, kirolak...** denetatik, baina paisaiak soilik ez.

Ea animatzen zareten, gu sariak banatzeko prest gaude eta.

OHARRA: Informazio gehiago, amezti.eus agerkarian.